

## **Cristóbal Balenciaga Museoa: Duela ehun urte ireki zuen Balenciagak Donostian lehen negozioa**

**Cristóbal Balenciagak Donostian lehen denda zabaldu zueneko mendeurrena eta Pariskoaren 80. urteurrena oroituko ditu Museoak 2017an. Balenciaga, sortzailea ez ezik, ekintzailea ere bazela nabarmenduko du programazioak**

***Urteko erakusketa nagusiak Bunny Mellon izango du protagonista, Balenciagaren nazioarteko bezeroen artean esanguratsuenak, eta iparramerikarrak Museoari utzitako legatuan oinarrituko da. 2017an, erakusketa hau Donostia inguruko eskualdearen turismo-sustapenaren ardatza izango da, eta Madrilen eta Parisen aurkeztuko dute, lehen mailako turismo-erakargarritasun gisa***

**Museoak, hainbat eragilerekin elkarlanean, Getarian eta Donostian antolatuko ditu urteurren horien inguruko ekitaldiak, bai eta ingurune birtualetan ere**

Donostia, 2017ko urtarrilaren 30a.

Cristóbal Balenciagak moda-sortzaile eta enpresari gisa egindako ibilbide oparoari hasiera eman zioneko oroituko dugu Museoan 2017an, 100 urte betetzen baitira Donostian lehenengo denda ireki zuela, eta 80 urte Balenciaga Paris etxea sortu zuela.

Mendearen hasierako Donostia aberatsean kokatzen da abentura horren hasiera. Oso garai bizia zen hura hiriko hirugarren sektorearen jarduera ekonomikoari zegokionez, Gorteko jendearen udako egonaldiek eta euskal kostaldeko turismoaren fenomenoak bultzatuta.

Cristóbal Balenciagak 22 urte zituenean jarri zuen abian bere lehenengo negozioa. Ezer gutxi dakigu horren aurretik izandako esperientziari eta prestakuntzari buruz; alabaina, 1907tik bizi zenez Donostian –udal-eroldako erregistroaren arabera–, pentsatzekoa da Parisko modarekin lotura zeukaten donostiar etxe garrantzitsuetako batzuetan arituko zela; segur aski, Casa Gómez, New England eta Au Louvre dendetan.

Jakin, badakigu –agiritan hala jasota baitago–, urte horretan bertan zenbait iragarki jarri zituela prentsan, langileak kontratatzeko, eta matrikula industrialeko liburuan inskribatu zela, moda-sortzaile epigrafean, maila gorenari zegokion kuota fiskalarekin, **C.Balenciaga** gisa, Bergara kaleko 2.ean.

Urte hartan, beste bost enpresari zeuden zerga-kategoria horretan alta emanda; guztiak ere itzal handikoak.

Handik urtebetera, aldatu egin zuen inskripzio hori, sozietatean bazkide berriak sartzeko: Lizaso ahizpak, hain zuzen. Sei urteko indarraldiko sozietate mugatu bat sortu zuten, **Balenciaga y Cía** izenekoak, negozio-zuzendaritza berari eutsiz.

Epe hori igaro zenean, 1924an, desegin egin zuten sozietatea. Cristóbal Balenciaga izenez eman zuen alta, eta Askatasunaren Hiribideko 2.era lekualdatu zuen jarduera. 1927ko martxoan, dibertsifikatzeko estrategia bati jarraituz, bigarren marka bat sortu zuten: **Martina Robes et Manteaux** –bere amaren izena zen Martina–, Okendo kaleko 10.eko 1. solairuan. Urrian, aldatu egin zion izena, eta **EISA Costura** jarri –amarekin lotuta hori ere, Eizagirre baitzuen amak abizena–.

Bi etxe eta markak batera aritu ziren lanean. Bigarrena, dena den, baliabide partekatuak optimizatzeraz eta tokiko burgesiako bezeroen oinarria zabaltzeraz zegoen zuzenduta.

Lehenengo enpresa, **Cristóbal Balenciaga** 1937ra arte egon zen zabalik; Balenciaga Parisera lekualdatu zen arte, alegia. Bigarrenak, **EISA Costura** izenekoak, Madrilen (1933) eta Bartzelonan (1935) ere izan zituen egoitzak, **EISA BE** izenarekin. Donostian, berriz, Hiribideko 2.ean egon zen.

Donostiako hiriguneko leku txiki-txiki batean izan zuen sorburua 50eko eta 60ko hamarkadetan Parisko goi-mailako jostintzako etxe ospetsuenetakoa izango zenak. Enpresa horrek, giro horretan ezohikoa zen arren, egitura iraunkorrak izan zituen Espainiako hiru egoitzetan, Balenciagak 1969an sozietate guztiak itxi zituen arte, 2.000 langile inguru zeuzkala.

Balenciaga, beraz, 50 urtean baino gehiagoan egon zen presente Donostiako bizitzan, izen desberdinak hartuta –merkatu-estrategiak zein askotariko sozietate-egiturak zirela eta–.

Testuinguru esanguratsu horretan, Museoak erakusketa eta jarduera bereziak programatuko ditu Donostiako hiriri lotuta, Cristóbal Balenciagaren obra zabaltzeko eta, batez ere, bere sortzaile- eta enpresari-alderdiak nabarmentzeko.

Beste erakunde batzuek ere oihartzuna eman diote efemeride horri; adibidez, Parisko Palais Galliera museoak eta Londresko Victoria & Albert museoak. Udaberrian, Balenciagaren lanaren bestelako ikuspegien inguruko erakusketak izango dira ikusgai aipatutako bi hiri horietan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Sailak erakusketa handi hori baliatu behar du Donostia Eskualdearen irudia zabaltzeko Estatuko zein Frantziako merkatuetan. Hala bada, Madrilen eta Parisen aurkeztuko dute erakusketa, Cristóbal Balenciagaren irudi sofistikatu eta dotorea helmuga turistiko osoarekin gune kultural gisa lotze aldera. Balenciaga Fundazioko buru eta Kultura eta Turismoko foru-diputatu Denis Itxasok azaldu duenez, «kulturaren eta turismoaren arloko kazetari espezializatuak eta blogariak deituko ditugu horretarako, erakusketaren berri ematearekin batera helmugaren balioak eta baliabideak ere ezagutarazi ahal izan ditzaten. Era horretan, Gipuzkoaren zabalpen eta sustapen turistikoaren elementu nagusia izango da *Balenciaga urtea*.

### **Nazioartean oihartzuna izango duen erakusketa monografiko handia**

Testuinguru horretan, Museoak «Collecting elegance. Rachel L. Mellon's legacy» erakusketa zabalduko du Getarian, maiatzaren 26an. Museoak berak ekoitziko du erakusketa, M. Hubert de Givenchyren zuzendaritzapean, eta Balenciaga etxearen bezero onenetakoa izandako Mrs. Mellonen eskutik jaso ditugun jantzi eta dokumentuetan egongo da oinarrituta.

Rachel Lowe Lambert Mellon (1910-2014), goitizenez *Bunny*, XX. mendeko Ipar Amerikako burgesiako dama handietako bat izan zen. Filantropoa, arte-bildumagilea, lorategien diseinatzailea (Etxe Zurikoak barne), kennedytarren lagun mina, eta Paul Mellon mezenas handiaren emaztea izandakoa Balenciagaren bezero aberats, sentibera eta eksklusiboen arketipoa da.

Erakusketak museoko erakusketa-areto guztiak hartuko ditu, zortzi hilabetez (2017ko maiatzaren 27tik 2018ko urtarrilaren 25era). 90 jantzi-pieza eta beste hainbeste elementu osagarri izango ditu (bozeto originalak, osagarriak, argazkiak eta bestelako dokumentazioa).

Pieza gehientsuenak Museoaren bildumakoak dira, eta horietako asko inoiz ez dira jendaurrean ikusgai egon; izan ere, iparramerikarrak 2014an hil zenean Museoari emandako azken legatuan dute jatorria (400dik gora jantzi eta osagarri), baita Mrs Mellonek sortutako Oak Springs Garden Library fundazioaren artxiboek egindako ekarpenetan ere. Badira, dena den, beste museo batzuetatik ekarritako piezak ere; adibidez, Londresko Victoria & Albert museotik eta Parisko Balenciaga Artxiboetatik.

Erakusketaren aurkezpena Parisen eta Madrilen egingo dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa turistikoki sustatzeko duen politikaren barruan.

## **Nazioarteko lankidetzak estrategikoak**

Beste alde batetik, aurten, museoak eta University of Arts Londoneko Central Saint Martins eskolak elkarlanean oinarritutako proiektu bat jarri dute martxan. Eskola entzutetsu horretako *Fashion Design Womens Wear* eta *Fashion Print* lerroetako ikasleentzat curriculumaren barruan sartuko da. Proiektu horren bidez, eskola britainiarreko 60 ikaslek Cristóbal Balenciagaren jatorria ezagutuko dute Museoan, eta egungo erakusketaren gaiaren inguruan egingo dute urteko proiektua; hots, «Ikatzak eta belusa. Ortiz Echagüek eta Balenciagak herri-janzkerari zuzendutako begiradak» gaiaren inguruan. Urtarrilaren hasieran Museoan izan ziren ikasleak, *study trip* moduko batean. Haien sormena eta ezagutzak landuz, sorkariak egingo dituzte, eta erakusketa birtual batean islatuko dira gero. Hala, Central Saint Martins eskolako moda-komunikazioko ikasleek proiektu bateratua aurkeztutako lan onenak aukeratuko dituzte, materialei argazkiak atera eta grabatu egingo dituzte, horiekin online erakusketa egiteko, eta erakusketa hori modaren arloko nazioarteko prentsan zabalduko da. Apirilean aurkeztuko dugu online erakusketa.

Museoak presentzia digital handiagoa izango du, bestalde, Google Cultural Institute erakundeak modari buruz martxan jarritako proiektuan parte hartzeari esker. Proiektu horretan, Museoako bildumak nazioarteko beste jantzi-bilduma nabarmen batzuekin partekatuko du protagonismoa. Maiatzean aurkeztuko dugu proiektu hori.

Kanpoko presentziari dagokionez, berriz, bildumak bi agertoki nagusi izango ditu aurten: Londres eta Calais (Frantzia). Victoria & Albert museoko «Balenciaga: Shaping Fashion» erakusketan, gure Museoaren bildumako hiru pieza egongo dira ikusgai; Calais hiriko Cité Internationale de la Dentelle et la Mode museoan, berriz, gure bildumako bi soineko egongo dira udaberriko erakusketan.

## **Mendeurrenaren testuinguruan, ekintzailak babesten**

Aurtengo berritasun nagusia «Cristóbal Balenciaga Museoa I. Eskola» dugu. Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetan, eta Donostia Sustapena - Modaren Klusterraren babesarekin, modaren munduko ekintzailakarekin lotutako gaiak jorratuko ditugu. Epizentroa Donostian izango duen teknifikazio-ekimen hori urteroko hitzordua izango da modarekin lotura daukaten profesionalentzat. Gai horrekin lotuta, hainbat tailer antolatzen ari gara Getarian, udazkenari begira.

Tokiko ekintzailak bultzatzeko asmoz, deialdi berrizailak egingo dugu apirilean, Museoako erakusgune edo *showroom* bat gazte ekintzailak eta tokiko markak lagatzeko. Horrela, ikusgarritasun handiagoa izango dute nazioartetik

museoa bisitatzen etortzen zaizkigunen eta modarekiko sentikortasuna dutenen aurrean.

### **Hiriarekin lotuta: Getaria eta Donostia izango ditu programazioak kokaleku**

Getariako museotik kanpo ere egingo ditugu hezkuntza eta zabalkundea bultzatzeko jarduerak, beste erakunde batzuen lankidetzarekin (Kutxa Fundazioa, Donostia Sustapena eta Euskal Herriko Unibertsitatea).

Egungo erakusketari lotutako jarduerak

Maiatzaren 7ra arte egongo da zabalik «lkatza eta belusa. Ortiz Echagüek eta Balenciagak herri-janzkerari zuzendutako begiradak» erakusketa. Hainbat jardunaldi eta jarduera antolatu ditugu, erakusketaren osagarri. Lehen hitzordua otsailaren 18an izango dugu, Donostiako Tabakalera zentroan, Kutxa Fundazioarekin elkarlanean. Bertan, «Tradizioa berrinterpretatzen: Moda eta herri-sustraiak» jardunaldian, erakusketaren ondorioetan sakonduko dugu, erakusketan parte hartu duten hainbat espezialistaren eskutik.

Erakusketaren inguruan ardaztutako tailerretan, bestalde, herri-janzkiari zuzenduko diogu arreta. Otsailaren 5ean eta 12an, Ane Albisu adituak euskal jantzia sortzeko eta interpretatzeko argibideak emango dizkigu. Martxoan, berriz, kapa tradizionala aztertuko eta egingo dugu, 1901az geroztik kapak egiten dituen Seseña etxe ezagunetik etorriko zaigun aditu baten eskutik. Martxoaren 25ean eta 26an egingo dugu hori, Museoan bertan.

Tarteka, eskola magistralak izaten ditugu Museoan; hau da, goi-mailako profesionalek Cristóbal Balenciagaren legatua ezagutarazteko emandako saio teoriko-praktikoak. Prestatu berri dugunak Javier Martín izango du protagonista. Eskola magistral hori Museoan ikusgai daukagun erakusketarekin lotuta dago. Arlo teorikoan, herri-janzkietan oinarritutako modeloak egiteko eta bolumenak sortzeko metodoak ezagutuko ditugu; praktikoan, berriz, prozesu horietan baliatzen diren teknikak landuko ditugu. Martxoaren 3tik 5era izango da eskola magistrala, museoan.

Getarian eta Donostian

Kutxa Fundazioarekin elkarlanean, oihalak eskuz estanpatzeko tekniken hiruhileko ikastaroa eskainiko dugu Museoan. Virginia Amezttoy artistaren gidaritzapean, artisauen serigrafiazeko prozesuak ezagutuko dituzte parte-hartzaileek. Apirilaren 29tik ekainaren 18ra bitarteko asteburuetan izango dira saioak, batzuk Kutxa Kultur Modaren tailerretan (Tabakalera, Donostia) eta beste batzuk Cristóbal Balenciaga Museoan (Getaria).

Gure Museoa eta Donostia uztartuko dituen beste ekimen bat ere izango dugu; izan ere, San Telmo Museoaren funtsetako pieza batzuk jarriko ditugu erakusgai

«Nabarmendutako pieza» atalean: zehazki, EISA etxeak 1952an Donostiako museorako egindako bi buruko tradizional. Pieza horiek otsailaren 20tik aurrera egongo dira ikusgai.

Horrez gain, baditugu Cristóbal Balenciagaren figuraren eta modaren inguruko proposamen kultural batzuk ere: familian egiteko jardueren programa, haurren oporraldirako programa, musika- eta dantza-programak, eta abar. Getarian ohikoak bihurtu zaizkigu jada uda-sasoiko halako ekimenak.

## **Cristóbal Balenciaga Museoa**

Getariako Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak, eta bere osotasunean moda-sortzaile bati eskainitako lehen museo handia dugu munduan. Haren helburua hauxe da: Cristóbal Balenciaga diseinatzaileraren lana ezagutaraztea eta nabarmentzea; oro har sorkuntza artistikoan eta bereziki modaren zein goi-mailako jostuntzaren arloan egindako ekarpena, alegia.

Cristóbal Balenciagak egindako sorkarien nazioarteko bilduma garrantzitsua daukagu gure Museoan, bai piezen kopuru eta kalitateagatik, bai bildumak besarkatzen duen kronologia zabalagatik.

Museoko aretoetan, bildumatik hautatutako piezak erakusteaz gain, modari lotutako aldi baterako erakusketak ere izaten ditugu, eta prestakuntzarako nahiz aisiarako hainbat jardura antolatzen ditugu.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:  
Cristóbal Balenciaga Museoa Komunikazioa**

Zuriñe Abasolo Izarra

Helbide elektronikoa: [zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:zurine.abasolo@fbalenciaga.com)

Tel.: 943 00 47 77 - 647 410 77

# B CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

